

ZIBERGELA

Urte zahar, urte berri (I)



Urte emankorra izan da amaitu berri dena, eta zenbait ekimenek arrakasta lortu dute ustekabeen

IBON AIZPURUA UGARTE

Eleka ingeniari-tza linguistikoa

Zer eman du teknologia berriei dagokionez amaitu berri den urteak? Zein izan dira sorpresa positiboak? Eta zein negatiboak? Amaitu berri den urte aztertzeko garaia iritsi da. 2007ak eman duen guztia laburtzea ez da erraza, urte emankorra izan baita. Ustekabeen arrakasta lortu duten zerbitzuak izan dira, eta baita kontrakoak ere, beraien-gandik asko espero zen ekimen batzuek nora ezean geratu dira.

Euskal Internetari dagokionez, protagonista bat baino gehiago izan dira: *Bildu.net* laster-markak biltzeko gunea, *Zabaldu.com* albisteak zabaltzeko gunea, *Euskaltube on-line* bideo zerbitzua eta *Elebila* euskarazko bilatzailea, esate baterako. Aipatutako horiez gain, badira beste hainbat zerbitzu eta ekimen berri oso interesgarriak izan

direnak. Hori guztia kontuan hartuz, pasa den urte oparoa izan dela esan daiteke, nahiz eta ekintzaileak hainbeste ez izan.

Web 2.0

Amaitu berri den urte web 2.0 teknologiaren urte izan da, zailantzarri gabe; jendeak ezagutu ditu YouTube, Flickr eta halako tresnak. Erabiltzaile pixkanaka eduki gehiago ari da sarean argitaratzen, blogak hor zeuden, eta orain argazkiak eta bideoak jartzea ohikoak bihurtu dira, plataforma hauek aproposak baitira elkarlaneko proiektuak aurrera eramateko.

Sare sozialak ere protagonista izan dira, MySpace eta Facebook webguneek arrakasta itzela izan dute. Ondorioz, Google eta Microsoft enpresa handiek beren estrategia definitu nahi izan dute arlo horretan. Dirutza handiak inbertitu dituzte sare sozialak erosten eta horien inguruan etorkizunerako oinarriak jartzen. Aurten oraindik zeresan handia emango dute sare sozialek.

Wii vs PS3

Jokoen munduari dagokionez, eta zehatzago esanda kontsolen arloan, irabazlea eta galtzailea nor izan diren argi geratu da. Irabazlea Nintendo etxearen Wii izan da, du-darik gabe; kontsolarekin jokatzeko zeuden molde guztiak hankaz

gora bota ditu, eta horren ondorioz, bideo-kontsolen merkatuan burua sartzea lortu du. Galtzailea, berriz, Playstation 3 izan da; sekulako iraultza gisa iragarri zuten, baina ez du nahi adinako arrakastarik lortu. Merkaturatze-estrategia izandako akatsak (prezioa neurritz kanpoko, bateragarritasun arazoak, atzerapenak...) nabarmenak izan dira, eta lehen PS2a dutenak itxuraz ez dute gailu berria erosteko premiari ikusi. Erdi bidean geratu da Microsoft-en Xbox kontsola; ez da PS3 adinako porrota izan, eta ez Wii bezain arrakastatsua ere.

Windows Vista

Bill Gates-en enpresari 2007an egin zuen apustua ez zaio nahi bezain ongi aterata. Windows Vista sistema eragileak ez du hain harrera ona izan, eta ordenagailu berrietan eskaintzen zutelako sartu da merkatuan. Uste baino harrera okerrago horren arrazoak bi izan litezke: Windows bertsio berri bat ateratzeko den bakoitzean, fidaga-

2007. urte 'Bildu.net', 'Zabaldu.com', Euskaltube eta Elebilaren urte izan da, beste batzuen artean

Jokoen borrokan, Nintendo aterata da garaile, Wii kontsolarekin; jokatzeko moldeak hankaz gora jarri ditu

rritasun minimo bat lortzea kostatu egin zaio. Eta bigarren arrazoia etxean bertan topatu du, hau da, Windows XPk egonkortasun handia lortu du, eta erabiltzaileek ez dute aldatzeko beharrik ikusi.

Linux eta Mac OS X

Gogor saiatu diren arren, ez dute lortu Microsoft-i leku asko kentzerik. Urte amaierako estatistikek diotenez, erabiltzaileen %8k soilik erabiltzen dute Linux edo Mac OS X sistema eragilea; gutxi gorabehera, aurreko urte amaierako datu bertsuak dira. Datu horietan ez dira kontuan hartu zerbitzariak; arlo horretan, Linux erabiltzen duten ordenagailuen portzentajea askoz handiagoa da.

Second Life

Urte hasieran protagonistetako bat izan bazen ere, urtea aurrera joan ahala indarra galtzen joan da Second Life. Mundu birtuala, enpresa birtuala eta diru birtuala izan ziren proiektu honen osagaietako batzuk. Baina, itxura denez, bertan negozio birtuala egin nahi zutenak aspertzen hasi ziren, eta pixkanaka dirua inbertitzeari utzi zioten. Horiek horrela, gero eta jende gutxiago dabil Second Life-eko mundu birtualean, enpresan birtualak ixten ari dira eta orango aukera pasatu zaiola ematen du.

Zibergelako artikuluguztiak:
www.baleike.com/blog/zibergela



Euskal blogosferako 2007ko onena

Abenduaren erdialdean Joxe Rojasek abian jarritako ekimena da hau, eta bertan 2007. urteko euskal blogosferako edo Internet euskalduneko zazpi gertaera/berrikuntza/ekarpen/aldaketa nabarmenenak jaso nahi dira. Hautaketa-prozesua aurrera eramateko wiki bat prestatu du, eta hiru fasetan egingo da. Lehenengo fasea amaitu berri da, abenduaren 31n hain zuzen, eta proposamenak jasotzeko fasea izan zen. Urtarrilaren 1etik 30era bitartean, bigarrena dago abian; bertan, jendeak hautagaiak bozkatzeko aukera izango du. Eta azkenik, urtarrilaren 31n zazpi aukeratuak zerrenda argitaratuko da. Ekimen interesgarria, eta euskal blogosferan 2007an gertatutako aipagarriena laburbiltzen lagunduko duena, dudarik gabe. Animatu zure gogokoena bozkatzera!

zazpi2007.teknopata.net



Fitxategi susmagarriak aztertzen

Batzuetan gertatzen da lagunen batek fitxategiren bat bidaltzea, eta birus bat edo zerbitzu arraroa eduki dezakeela susmatzea. Zailantza horiek uxatzeko, VirSCAN tresna erabiltzea da onena. Interneten dagoen tresna honetara susmopeko fitxategi horiek igo daitezke, konprimituak badira ere bai, betiere 10 MB-ko tamaina ez badute gainditzen eta barnean hamar fitxategi baino gutxiago baldin baditu. Behin igo ondoren, VirSCAN-ek sarean dauden hainbat antibirus zerbitzu bidez aztertzen ditu, eta ondoren emaitza erakusten du.

Azterketa egiteko antibirus bat baino gehiago erabiltzen dituenek, emaitza fidagarriagoa izango da. Hala ere, zerbitzu honek fitxategiak aztertzeko soilik balio, eta ez du ordezkatzen norbere ordenagailuan izan beharreko antibirusa.

virscan.org

